

UKRAINATIK DATOZEN ANIMALIEN JABEENTZAKO INFORMAZIO OHARRA

Ukrainaren egungo egoera ikusita, eta bertako errefuxiatuak animaliekin batera iritsiko direla aurreikusita, Eusko Jaurlaritzak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako forualdundiekin lankidetzan, informazio-ohar hau egin du, errefuxiatu horiek Euskadira iritsitakoan segi beharreko jarraibideekin.

Ukraina da oraindik ere amorrua oso zabaldua dagoen Europako herrialde bakarra animalien eta pertsonen artean. Horregatik, prebentzio- eta kontrol-neurriak hartu behar dira etxeko animalien (txakurrak, katuak eta hudoak), jabeen eta, oro har, herritarren osasuna bermatzeko.

Ilido horretan, Nekazaritza Ministerioko Nekazaritza Ekoizpenaren Osasun Zuzendaritza Nagusiak egindako Protokoloan jasotako neurri hauek hartu dira:

- **SARRERARAKO INFORMAZIOA**: Ukrainako edozein jabe, pertsona, kolektibo, elkarte edo erakunde, administrazio publiko eta, bereziki, osasun publikoarekin edo animalien osasunarekin lotutako edozein profesionalak, Ukrainatik datorren edozein animalia iritsi dela jakiten badu, berehala jakinaraziko die forualdundietako abeltzaintza-zerbitzuei.
- **IDENTIFIKAZIOA ETA ERREGISTROA**: animalia behar bezala identifikatuta eta erregistratuta ez badago, identifikazioa eta erregistro ofiziala egingo zaizkio.
- **AMORRUAREN AURKAKO TXERTAKETA**: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak ezarritako protokoloari jarraituko zaio. Protokolo horrek txertaketa-jarraibideak, proba serologikoak eta berrogeialdiak jasotzen ditu.
- **DESPARASITAZIOA**: Ukraina Hidatidosia eragiten duen parasitoaren herrialde endemikoa denez, animalia hori praziquantel bidez desparasitatu beharko da.
- **KOSTUAK**: Ukrainatik datozen pertsonen egoera berezia ikusita, animaliekin bidaiatzen duten pertsonentzako adierazitako neurriek ez dute inolako gastu ekonomikorik eragingo.

JAKINARAZPEN-, HARREMAN- ETA INFORMAZIO-PUNTUAK:

- **ARABA**: *servicioganaderia@araba.eus*, 945 181818
- **BIZKAIA**: *servicio.ganaderia@bizkaia.eus*, 94 4066887
- **GIPUZKOA**: *abeltzaintza@gipuzkoa.eus*, 943 112987

